

BERRIGARA


1. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1990, Abenduak 14





Euskeraren
ordua
Bergaran



kutxa

gipuzkoa

donostia kutxa



GAMAK

INFORMATIKA GAUZAK

- * ORDENADORE KONPATIBLEAK: COP.
- * INPRIMAGAILUAK: OKI OLIVETTI.
- * PLOTERSak: CALCOMP, ROLAND.
- * DIGITALIZADOREAK: CALCOMP.
- * SARE LOKALAK: NOVELL.
- * OHIZKO EGINKIZUNAK: KONTABILITATEA, GESTIOA.
- * ETIKETAK DISEINATZEKO SOFTWARE.
- * CNC- 4. belaunaldia - PROGRAMAKETA SISTEMA OSOA.
- * OSAGARRIAK: MODEMAk, DISKO GOGORRAK, STREAMERak, etab.
- * ESKUARTEKOAK: PAPELA, DISKETEAk, ARTXIBADOREAK, FUNDAK...
- * T.P.V. (SALTOKIKO TERMINALA)

**BETI PREST
GURE IDEIA, ESPERIENTZIA
ETA SOLUZIOAK ZURI AZALTZEKO.**

ARTZAMENDI, 1

Tfnoa: 76 56 85, Faxa: 76 55 97

BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea:

Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzio eta maketazioa:

Jon Andueza. Edurne Arenaza.

Diseinua:

Goio Arana

Publizitatea eta harpidetzak:

Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru.

Kolaboratzaileak:

Josu Oregi, Antonio Urzelai, Ifaki Artola, Agurtzane Arriola, Mirari Alberdi, Karmen Urrutia, Silvia Sanz, Asier Madinabeitia, Imanol Arregi, Mikel Alberdi eta Xabier Larrañaga.

Argazki laborategia:

Bergarako Argazkilari Taldea, Benito Cantero eta Kifu.

Komikia eta marrazkiak

Josu Okina

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 1.500 ale

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.



14 OSTIRALA

- **Zinea:** "Pretty Woman", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Bideo Hamabostaldia:** Arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean, "Mad Max" filmearen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategin.

15 LARUNBATA

- **Zinea:** "Pretty Woman", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Bideo Hamabostaldia:** Eguerdiko 12etan, Kultur Etxean, joan zen urteko gabonetan Kiroldegian antolatutako haur-jolasen bideo emanaldia.
- **Abendu Musikala:** Arratsaldeko 7etan, Orfeoiko lokalean, Mari Karmen Aiausti pianojolearen emanaldia.
- **Tutea eta Musa:** Goxope Elkartean, afora, eta ondoren elkarte arteko Tute eta Mus Txapelketaren finala. Aurrez aurre Pertxa eta Gorla Elkarreetako jokalaria.
- **HBren bazkaria:** Altsasun.
- **Goardiako farmazia:** Mozos, San Pedron.

16 IGANDEA

- **Zinea:** "Pretty Woman", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Jubilatu bazkaria:** Pertxa Elkartean, urtero bezala Mahasterreka kaleko jubila-tuentzako bazkaria.
- **Batzokiaren 10. urteurrena:** 11etan, ikurriñaren ja-soera. Ondoren aktu politikoa (Ardanza, Egibar, etab), eta bukatu eta gero bazkaria frontoian
- **Futbola:** Arratsaldeko 3.30etan, Preferente mailako neurketa: Bergara-Danak.
- **Goardiako farmazia:** Mozos, San Pedron.

17 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Pretty Woman", 7.30etan.
- **Bideo Hamabostaldia:** Arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean, "Purpura kolorea" filmearen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzetan.

18 ASTEARTEA

- **Bideo Hamabostaldia:** Arratsaldeko 7.30etan, Kultur Etxean, telebista lokalei buruzko hitzaldia. Partehar-tzaileak, Arrasate eta Ando-aingo telebistetako ordezkariak.
- **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

19 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Guayar, San Antonion.

20 OSTEAGUNA

- **Zine Kluba:** Arratsaldeko 7.30etan, "Mister Frost".
- **Bideo Hamabostaldia:** Arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean, estetika lantzen duten bideo ezberdinen emanaldia.
- **Ikastolako Batzarra:** Aranzadi ikastolako gurasoen batzarra.
- **San Jolgorio jaia:** Aranzadi ikastolan, goi ziklokoek antolatutako festa.
- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategin.

Aukeran...

"BIDEO
HAMABOSTALDIA
KULTUR ETXEAN"

Aukera ederra duzue hurrengo egunotan, Kultur Etxean antolatu duten Bideo Hamabostaldia dastatzeko. Bideo emanaldiak, hitzaldiak, etab.

LAKE

GIZON ETA GAZTEENTZAKO
JANTZIDENDA

IRIZAR IBILBIDEA

Garbil

Industriarako inprenta lanak.
Papelgalak eta idazteko gauzak

ARTZAMENDI 4
Tfnoa: 76 23 28

BERGARA

IGARO

GOI MAILAKO KOSMETIKA
USAINDEGIA.

BIOSOLARIUMA. EDER-GELA

BARRENKALE 25

BERGARA

Tfnoa: 76 17 27

Kiñu

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15
Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

Mujika Jantxidenda

BARRENKALE, 1 BERGARA
Tfnoa: 76 29 91

Euskalduna Taberna

OSINTXU

CARASA

ASEGURU ARTEKARIAK

D. FLEMING 3 BERGARA
Tfoa: 76 15 24



ZENBAT KILOMETRO?

Ez da denpora asko kaminotako seinaleak jarri dituztela. Seinale haundiak, baina jartzen dituzten disparteak haundiagoak.

Gasteiz 54, edo Maltzaga 17 ikusi daiteke Madura aldean.

Bergaratik Gasteizera 45 km. inguru dago, eta Maltzagara 9 edo 10. Beraz okerra ez da nolana hikoia.

Eta txarrena da seinale gehienak daudela gaizki. Fijatu bestela Osintxuko bariante sarreran: Maltzaga 13. Eta ez dira 6 edo 7 besterik egongo.

Beste gauza bat. Beherako direkzioan beti Maltzaga agertzen da. Ez ote luke Eibar edo Elgoibar jarri behar?

Guk badakigulako, baina ez dakiena hor imajinatzen dut mapari begira eta Maltzaga topatu ezinda, ez bait dator mapa gehienetan, eta gainera ailegatzen zara Maltzagara eta han ez dago izena jartzen duen seinalerik. Herri fantasmaren bat dela pentsatzeko motiboa dute turistek.

Patxi Izaldegi

ETXEZARRETA ZAINDU

Bergara eta Arrasate lotuko dituen saihesbidea dela eta, badirudi guztiz ondatuko dutela Etxezarreta.

Ez dakit arduradunak ohartu diren bertan daukagun ondareaz: Hitz gutxitan esanda, beste inon aurki ez daitekeen aberastasuna.

Ondo iruditzen zait azpiegiturak hobetzen saiatzea, baina mesedez, ez dut uste horretarako gure ingurunean daukagun tokirik ederrenetarikoa txikitu beharra dagoenik!

R. A.



• ERITETXEAK

| | |
|----------------------------|----------|
| Osasun etxea | 76 10 82 |
| Larrialdiak | 76 12 94 |
| Arrasateko ospitalea | 79 53 00 |

• GURUTZE GORRIA

| | |
|-----------------|----------|
| Bergara | 76 55 76 |
| DYA | |
| Antzuolan | 76 62 91 |

• ANBULANTZIAK

| | |
|--------------------------|----------|
| Bergaran | 76 13 59 |
| Gipuzkoako anbulan | 45 87 44 |

• SUHILTZAILEAK

| | |
|------------------|----------|
| Zubillagan | 78 28 00 |
|------------------|----------|

• POLIZIA

| | |
|--------------------|----------|
| Udaltzaingoa | 76 14 69 |
| Ertzaintza | 76 53 40 |

• GARRAIOAK


| | |
|---------------|----------|
| P.E.S.A. | 76 16 46 |
| Taxiak | 76 19 50 |

• HIRUGARREN ADINA

| | |
|-------------------|----------|
| Mizpirualde | 76 13 68 |
| Aitonak | 76 21 40 |

• BESTELAKO ZERBITZUAK

| | |
|----------------------|----------|
| Udaletxea | 76 39 42 |
| Epaitegia | 76 14 72 |
| Polikiroldegia | 76 56 41 |
| Igerilekuak | 76 20 21 |
| Kultur Etxea | 76 44 46 |
| IMI | 76 55 49 |



Ekintza ugari Errotalden igandera arte

“Euskara Bergaran” kanpaina

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatuta, pasa den asteburuan eman zitzaion hasiera “Euskara Bergaran” kanpainari.

Egitasmoaren barruan, hainbat ekintza eraman dituzte aurrera Errotalde Jaurerrian.

Alde batetik, Bergarako euskal idazleei buruzko erakusketa aipatu behar, igandera arte zabalik aurkituko duzuen. Guztira 30 inguru dira, eta erakusketan euren argazkiak, datuak eta idazlanak bildu dituzte.

Kanpainaren helburu nagusia, ordea, euskarari buruzko azterketa soziolinguistikoa kaleratzea izan da.

Gauzak horrela, aste osoan zehar *Siadecok* egindako azterketaren txostena eta bideoa izan ditugu ikusgai.

Hitzaldiek ere euki dute euren tartetxoak. Asteazkenean, *Siadecoko* Iñaki Larrañaga eta ETBko Kike Amunarriz izan genituen



Astean zehar haur ugari bildu da Errotalden

Errotalden, azterketa soziolinguistikoaren aurkezpena egiten. Atzo, berriz, Gerardo Elortzak “Euskara Bergaran historian zehar” gaia jorratu zuen.

Siadecoren datuak

1987an Bergarako Udalak euskararen egoerari buruzko azterketa soziolinguistikoa eskatu zion *Siadecori*, eta enpresa honek kale-

ratu berri ditu ikerketaren datuak.

Horien arauera, bergararren %66ak ondo menderatzen du euskera, eta %12ak zerbait. Datu pozgarriak.

Koxka, ordea, hitzegiterako orduan agertzen da. Gazteen %20ak eta helduen %38ak erabiltzen du soilik.

Horixe da Bergarak bizi duen kontraesan nagusia eta etorkizunean gainditu beharreko apostua. Ea ba.

Arkeologia ikastaroa

Bergarako UNEDek bultzatuta, datorren urtariletik aurrera arkeologia ikastaroa abiaraziko da.

Ikastaroak bi atal izango ditu; alde batetik atal teorikoa, eta bestetik atal praktikoa, irteera ezberdinen bidez gauzatuko dena.

Klaseak larunbat goizetan izango dira. Bestek beste, Euskal Herriko, Salamancako eta Perugiako Unibertsitateetako irakasleak izango ditugu hizlari. Era berean, Arabako Arkeologi Institutuko eta *Escuela Nacional de Restauracion y Conservacion de Bienes Culturales* delakoaren ordezkariak ere hurbilduko dira klaseak ematera

Izena emateko epea abenduaren 21a arte egongo da zabalik. Gogoratu, bestalde, UNEDeko ikasleek 10.000 pzta. ordaindu beharko dutela, eta gainontzeko guztiek 12.000.

Jende ugari larunbateko bertso saioan

Txapela, lore sorta eta afariaren truke kantatu zuten joan zen larunbatean Lazkao Txiki, Mañukorta, Mendizabal eta Sarasuak Mariaren Lagundia ikastolako 8. mailako ikasleek, ikasbidaiarako dirua biltzeko antolatuta zuten bertso-saioan.

Entzule asko eta saio polita. Egin dezatela bidaia ona eta txapela antolatzaileentzat halako ideia ederra izan zutelako.



alga

Usaindegia.

Eder-gela. Oparigaiak.

IBARGARAI, 10 Tlfnoa: 76 00 85

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

IRIZAR IBILBIDEA 2, Tlfnoa: 76 27 86 BERGARA

● **Ikastaroak IMIn**

IMI zentruak aditzera eman duenez, 1991 urtean zehar hamairu ikastaro ezberdin antolatuko ditu.

Lehenik eta behin, urtarilaren 14tik 18ra bitartean *Lotus 1-2-3* ikastaroa burutuko da. Ondorengo hilabeteetan, berriz, *Base III*, *Clipper*, *Frame Work*, *MSDOS*, *Word* edota *Open Access* programak landuko dituzte.

Izen emateak IMIren egoitzan egingo dira, horretarako bertako txartelak erabili behariko direlarik. Bestalde, ikastaroren baten parte hartu nahi duen edonork nilabete lehenago eman behar du izena.

● **EAJren ospakizuna**

Batzokiaren 10. urteurrena betetzen dela eta, igandea ospakizun eguna izango dute EAJkoek. Goizeko hamaitan bilduko dira. Aktu politikoan, besteak beste Jose Antonio Ardanza lehendakaria eta Joseba Egibar izango ditugu hizlari. Ondoren, ordu biak aldera bazkari ederrea frontoian.

Azoka, frontoia eta aparkalekua eraiki asmoz

Udalak Elca erosi

Astelehen eguerdian egindako Udalaren Osoko Bilkura Berezian, zinegotziek ahobatez onartu zuten Katabiako Elca tailerra erostea.

Udalak ia lau milioi pzta. ordaindu behariko ditu erosketagatik. Gauzak horrela, 52 m2 dituen tailerra eta 114 m2ko ingurunea eskuratuko ditu.

Asmoa, Elca tailerra bertan behera botatzea da, Santa Marinako eleizaren atzekaldean eraikuntza ugari egingo bait dira etorkizunean.

Alde batetik, gogoratu hogeitazortzi postu izango dituen azoka plaza eraiki nahi dela. Ohizko produktuez gain, baseritarrek ere bertan saldu ahal izango dituzte euren barazkiak.

Azokaren alboan, bestalde, Udalak frontoia, probalekua eta lorategia egin nahiko lituzke.



Zeharo aldatuko da Katabia etorkizunean

Aipatzekoa da ere, ingurune horretan lurrazpiko aparkalekua eraikitzeko proiektua landu omen dela. Antza denez, aparkalekuak bi solairu izango ditu, eta ehun kotxe inguru sartuko dira bertan.

Epe laburrean, beraz, itxuraldatuta ikusiko dugu Katabia. 1991erako aurrekontuetan onartzen bada, obrak hilabete batzuk barru hasiko lirateke

● **Sexualitatea**

Emakumearen laguntzarako zerbitzuak sexualitateari buruz egindako inkestaren arabera, hona hemen zer pentsatzen duten Bergarako gazteek:

Mutilen %13ak gurasoekin jorratzen du gaia, %39ak, berriz, irakasleekin. Emakumeen kasuan, ostera, %15ak gurasoengana jotzen du, eta %65ak irakasleekin.

Mutilen %39ak sexualitatea umeak egiteko dela pentsatzen du, %61, berriz, gozamenerako dela soilik. Emakumeen %15ak umeak egiteko dela erantzuten du, eta %35ak, aldez, gozamenerako dela.

Mutilen %29ak, azkenik, naturalizat jotzen du homosexualitatea. Nesken kasuan, %75ak.

● **Argazki laborategia**

Duela bi aste inaguratu zuten Errotalde jauregiko argazki laborategia. Aurretantzean, erabili nahi duen edonork txartel berezia eskuratu behar du.

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5
BERGARA

Tfnoa: 764150

ORTZI erretegia


Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68 BERGARA

BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2,
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA



Aste honetan hasi eta urtarrilaren 5a arte

Antzuola jaigiroan

Aste honetan hasi eta urte bukaera arte luzatuko den egitarauan, ekitaldi ugari dastatzeko aukera izango dute antzuolarrek.

Herenegun, abenduak 12, independentzia eguna zela eta, gai horri buruzko hitzaldia eman zuen Iñigo Ramirez-ek Udaletxeko hitzaldi aretoan.

Atzo berriz, abenduak 13, *Goiz Argi* abesbatza-
ren emanaldia entzun ahal izan zuten zine aretoan.

21ean, eta urteroko ohi-turari jarraituz, Santo Tomas eguna ospatuko dute herrian. Jaigiroa, beraz, Antzuolako kaleetan bizi-ko dutena.

22an, berriz, euskal liburu eta diska azoka zabalduko da. Besteak beste, Durangon aurten aurkeztu diren nobedadeak ezagutzeko aukera polita.

Haurrei ere gorde diete euren txokoa. Horrela,



abenduaren 29an, umee-
k egindako komikien era-
kusketa burutuko da. Arra-
tsaldez, pailasoak eta me-
rienda ederra.

Bukatzeko, urtarrilaren
Sean Murua, Lizaso, Ega-
ña eta Sarasua bertsolarien
saioa.

Egitarau borobila, be-
raz, Udalak, Guraso Elkar-
teak, AKEk, Kuadrila El-
karteak, Idolaz-ek eta ikas-
tetxeek antolatatu dutena.



1896a: Algodoneraren hasiera genuen. Argazkian, emakume langileak

5.000 milioi pzta.ko eraikuntza berriaz

TAVEX Marruekosera

TAVEX taldeko oinarri-
den San Antonioko Algodone-
nerak 5.000 milioi pzta. in-
bertitu ditu Marruekosen,
urtarrilean zabalduko den
lantegi berriareneraikuntzan.

Lantegi hori Rabat eta
Marrakech artean kokatua
dago, Settat-en. Momentuz
36.000 metro karratu baditu,
etorkizunean 180.000 metro
karraturaino hel daiteke. 240
langile hasiko dira bertan la-
nean, lau txandatan.

Egitasmo hau aurrera
eramateko, Bergarako talde-
ak SET-TAVEX Elkarte

sortu behar izan du, Joseph
Marciano marrokiarra kide
izango delarik. Halere, ak-
zioen %70a Algodoneraren
esku egongo da.

TAVEX taldeak zazpi
lantegi ditu gaur egun Estatu
Espainolean, guztira 1.200
langile.

Lantegi berriarekin Afri-
kako iparraldeko merkatua
ornitu nahiko lukete, eta baita
EEBBtako merkatura heldu
ere. 1991 urterako, 1.500 mi-
lioi pzta.ko irabaziak lortu
nahiko lituzkete, inbertsioa
errekuperatzen hasteko.

BERGARAKO UDALA

TOPONIMIA BILTZEKO BEKA DEIALDIA

Deialdiaren oinarriak Udaletxeko
Idazkaritzan.

BERGARA, 1990, azaroak 28

ALKATEAK



Jardun Elkartearen aurkezpena, 1990eko maiatzaren 17an.

Pasa den maiatzaren 17an, bergararrok euskara bultzatzeko egitasmo baten berri jaso genuen: *Jardun* Elkartearen sorrera, hain zuzen.

Dagoeneko zazpi hilabete igaro dira ordutik, eta gaur eskutartean daukazuen astekaria, Elkarteak errealitate bihurtu duen lehenengo urratsa besterik ez da.

Egin

Bergarako herriak ardura har dezan

Euskara plazara *Jardunen* eskutik

AEDren itzalpean

Bost bat urte pasa dira *Arrasate Euskaldun deza-gun* Elkarte sortu zenetik. Gutxika gutxika egindako lanaren ondorioz, gaur egun AED eredu bihurtu da euskararen alde dihar-dutenentzat.

Jarduneko arduradunek ere onartzen dute arrasatearren bideari eutsi diotela. "Lan ikaragarria egin dute han, eta duda barik guri ere gustatuko litzaiyuke haien neurrira heltzea".

Bazkideen garrantzia

Bide horretan, ezinbestekoa izango da bazkideen laguntza. 4.000 pzta.ko

kuota ordaindu beharko dute urtero; hau da, gutxi gora behera 350 pzta. hilabete bakoitzeko. "Diru hori *Elkartearentzat* izango da, ez *Berrigararentzat*. Argi utzi behar da astekaria edonork jaso dezakeela dohan etxeko buzoian".

Gaur egun, berrehun inguru dira *Jardun* Elkartearen bazkide izateko izena eman dutenak. "Oso gutxi,

kontutan hartzen badugu Bergaran dagoen euskaldun kopurua. Ateak zabalik daude guztiontzat, eta denak hurbildu nahiko genituzke, euskararen alde elkarlanean".

Ekitaldi ugari

Aipatu bezala, gaur eskutartean daukazuen astekaria egitasmo zabalago

baten lehenengo urratsa besterik ez da.

Elkarteak beste hainbat arlo jorrazteko asmoak erakutsi ditu; hala nola hitzaldiak, mahainguruak, ikastaroak, euskarazko zine eta antzerki emanaldiak, etab. antolatatu nahiko lukete.

Ukitu ere ukitu izan da herri mailako telebistaren gaia. Oraindik, ordea, proiektu bat baino ez da, proiektu berde xamarra.

Oinak lurtean

Ekintza puntaletaz ari-tu gara orain arte; baina ekintza horiek hasierako pausuak dira soilik.

Astekariak lortuko duen tirada, edo telebista edo mahainguru baten audien-

Jardunek berrehun bazkide inguru ditu gaur egun. Gutxi, kontutan hartzen badugu Bergaran dagoen euskaldun kopurua

tziaren ginetik kokatzen da erronka.

Jardunen helburua, bergarar guztien euskal kontzientzia sendotzea, indartzea litzateke. "Elkarte hau sortzera eraman gaituen arrazoia, Bergaran ikusten dugun gazteleraz berba egiteko joera izan da. Gure herrian jende askok daki euskaraz, baina oso gutxi erabiltzen da, oso gutxi edo bat ere ez".

Dagoen euskaldun kopuruarekin, gainera, ez litzateke horrela izan behar. *"Geuk nahi izanez gero, bergararren geure eguneroko bizimoduan euskara askoz gehiago entzun ahal izango litzatekeela uste dugu. Horregatik, euskara erabiltzea erraztuko duen giroa sortzeko premia ikusi dugu eta asmo horrekin sortu da gure Elkarte".*

Heldu da Berrigara

Direnak direla, gu geu behintzat heldu gara zuon artera. Aurrerantzean, ostiralero ostiralero izango gaituzue buzoian, hala nahi baduzue.

Miguel Angel Elkoroberezibarren zuzendaritzapean, bi pertsona arituko gara egun osoz lanean, Edure Arenaza eta Jon Andueza. Erredakzio kontseilua Juan Martin Elexpuru, Jose Angel Mikeo eta



Berrigara taldea, aurrerantzean astero zuekin.

Estepan Plazaolak osatuko dute. Ezin utzi eskertu gabe, ordea, astero kolaboratzaile taldearengandik jasoko dugun laguntza: bai artikuluak idazterakoan, zuzenketak egin, argazkiak errebelatu

edota banaketa egiterakoan.

Bukatzeko, aipatu hasiera honetan hamasei orrialdez gatozkizuela. Dena den, laister batean gure eskaintza sendotu nahiko genuke, atal berriak gehituz.

***Ekintza puntualen ginetik,
Jardunen helburua
bergararren euskal
kontzientzia sendotzea da.***

Hiru hitzetan

Alboko artikuluak esan ditu esan beharreko gehienak proiektu berri honi buruz, baina hala ere, hiru hitz jaurtiki nahi nituzke Bergarako plaza erdira.

Lehenengo hitzak agur bero bat izan behar du, kaixo zabal bat eta ongietorri orokorra zuoi guztioi. Bergarako euskaltzale orok du hitza, eta hitz hori erabiltzeko eskubidea. Hitza bera euskara bada, hortxe berarentzat leku egokia, aukera ezinbestekoa eta beharrezko erabilpena honoko lerroetan.


Bigarren hitzak eskerrak zuoi esan nahi du. Eskerrak JARDUNen bazkide zaituztegunoi eta baita BERRIGARAREN harpidedunei ere; era berean edozertan laguntzeko prest zaudetenoi, denon artean proiektu aberasgarri hau eramango bait dugu aurrera.

Hirugarren hitza EUSKARA bera litzateke, edota beste era batera esanda: zeure txanda irakurle. Beraz, pasa orria, jarraitu astekaria irakurtzen, ezagutu berriak, eta hori bai! Konturatu eskuetan daukazuna zeurea dela, zeuretako egina; eta hau horrela, okerrik nabaritzuz gero adierazi, guri esanez edota bertara idatziz, eta ondo egindakoak ondo egin.

M. A. Elkoroberezibar
(Zuzendaria)

PUXKIN

OINETAKOAK



D. IRALA.
BERGARA

Tlfnoa: 76 21 17

EASTEA

MODA ETA LAGUNGARRIAK

T.Aranzadi

Tfnoa: 761008

BERGARA


PRAKAK
Lee rok
 Burdinate z/g
 Tfnoa: 76 40 06 BERGARA

ARGAZKI
 BARRENKALE 16
 Tfnoa: 762066
 BERGARA

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 D. IRALA 5
 Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

CAMACHO
 * DROGERIA
 * USAINDEGIA
 BIDEKURUTZETA 24
 BERGARA. Tfnoa: 761335

Zer deritzozu euskera hutsezko astekariari?



Xabier Zubizarreta

Oso ondo iruditzen zait. Garrantzi-
tsua izango da Bergaran euskararen
presentzia indartzeko.




Amagoia Akizu

Ondo iruditzen zait. Nahiago dut
gainera euskera hutsean izan dadila.



Mari Tere Telleria

Ondo irutzen zait. Neri asko kostat-
zen zait irakurtzea, gure garaian erderaz
erakutsi zigutelako soilik. Baina tira,
garaia da euskeraz irakurtzen ikasteko
ere. Zenbat eta gehiago jakin, hobeto.



Juan Luis Etxaniz

Ondo ikusten dut euskal astekari
bat eukitzea. Erderaz nahikoa eta sobera
daude, eta beraz, ondo iruditzen zait
Bergaran bat euskara hutsean egitea.

Zubikua
 Barrenkale 24
 Tfnoa: 761016 BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK

 BIDEKURUTZETA 7, Tfnoa: 76 10 57 BERGARA

KILKA
 MENAGE
 ETA
 OPARIAK
 BARRENKALE 18
 Tfnoa: 76 34 08
 BERGARA

Umore onakin gatoz

"Berrigara"n bertako euskeriak bere lekua izango dau. Entrebistak eta holakuak sarri agertuko die etxeko euskeran eta txoko hau, beti. Txistiak, esaera zarrak, pasautakuak eta...zer ezta etorriko zaitxo honetan. Eskribatzailliak pe bat baiño gehixao izango ga. Kaixo ba! Hemendik aurrera astero etorriko ga zure etxera eta etxeko berbetan jardungo dogu alkarrekin.

Domeka iluntzeko azkenengo tren Bergako beheko estaziñora ailegau baiño len arginddarrik barik geldittu zan Zapatariko aldian. Trenetik jatxi eta jente guztia oiñez abixau

zan kale aldera, baiña mozkor bat zetorren harri koxkorran pare, lo seko.

Joan jakon interbentoria eta bizkarretik astindduaz esan zotsan:

- Oiñezkero hobe dozu zuk pe jaikitzia, korrieretik eztago eta.

- Rzzz! Zer, hori be badogu? etaraizu orduan litroerdi bat markakua.



- Hi, bragetia itxi heike bestela txorixak ihes eingosk eta.

- Ba, eztoz urrin joango arrautzak apixan lagata.

Juan Martin Elexpuru

Tximista bezala...

Aspaldi ez dela, paper zahar batzuk arakutzen ari nintzela, Gipuzkoako Diputazioak zabalduko horma-iragarki bat eskuetaratu zitzaidan. Honela zion hitzez-hitz, bere garaiko giputz-erajatorrean eta ADITZERA idazpurupean: "Jainkoak daki zer oker ikaragarriyak gertatu litezken Probintzi ontan, ill onen 26-ean, Paristik-Madrilla, gure kamiyo errialetan, chimista bezela pasako diran "automovil" izena duten eta, baforiaren bidez, neurririk gabe korritzen duten gurdi edo koche mota berriyak. Ala, nere aldetik eragotzi nairik alegiñ guztian desgrazi edo doakabe oyek, debekatzen det, osoro, Probintziyak kamiyo errialetan egun ortan ibiltzea, goizeko seyetatik arratseko zortziyak arte, persona, animala, gurdi eta beste orlako edozeiñ gauz Beobiya, Irun, Errenteriya, Donostiya, Lasarte, Andoaiñ, Billabona, Irura, Tolosa, Alegriya, Ikaztegiyeta, Legorreta, Isasondo, Villafranka, Beasain, Idia zabal eta Echegarate-ko mugaraño".

Parisetik Madrilerainoko auto-lasterketa hori 1903.ean izan zen eta, ikusten denez, orduko diputatuek ez zuten antza, oraindik, hamabost bat urte lehenago hasitako petrolio-indarrezko autoek iadanik lurrin-indarrezkoei nagusitu zitzaizkienaren berririk.


Tximistarena bezalako abiadari gagozkiola, mende-hasieran bazen dagoeneko saio-bidatzetan orduko 200 kilometrotaraino iritsi zitekeen autorik; errepide arruntetan, ordea, tresna-osagaiak oso hauskorak izaki, askoz ere abaida apalagotan ibili behar izaten zuten. 1899. urtean Frantziako 2.500 kilometroko bira irabazi zuena, adibidez, batzbeste orduko 50 kilometroko abidan ibili zen.

Jainkoak izan ezik inork antzeman ezineko kalte ikaragarri buruz, berriz, diputatu jaun agurgarri haiek gure bideak autoz, eta orain benetan "neurririk gabe korritzen duten" autoz beteta ikusita lioketena entzutekoa litzateke.

Josu Oregi

NEREA
LENZERIA

S. Arrieta Eparantza, 1
Tfnoa: 761952 BERGARA



Barrenkale, 3. BERGARA • telf.: 943-765919



ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

✓ **Pol-Polen oharra**

Pol-Pol Mendizale El-karteak aditzera eman duenez, dagoeneko ekin diote skizaleen federatu txartelak tramitatzeari. Prezioa, 2.500 pzta.

Era berean, Astun-era joan nahi dutenek ere bo-nua jaso dezakete dagoeneko, 38.000 pzta. ren truk.

✓ **Arku ikastaroa**

Abenduaren 26, 27 eta 28an, arku tiraketa ikastaroa egingo da kiroldegian.

Izena emateko epea abenduaren 21a arte luzatuko da. Udaletxeko Kirol Zerbitzuaren bazkideek 500 pzta. ordaindu beharko dute, eta gainontzeko guztiak 1000.

✓ **Bergara-Danak**

Igandean, 3.30etan, Preferente mailako neurketa Agorrosineko zelaian.

I. Gallastegi, igeriketa gozatuz

Iñigo Gallastegik hemezortzi urte ditu, horietako hamabi igeriketaren munduari lotuta eman dituelarik.

Duela aste pare bat, Gipuzkoako Igerilari Konplotoenaren txapela irabazi zuen Agorrosinen. Neurketa lau estiloetan jokatu zen (bakoitzean 100 m. ko proba), eta Iñigok bataz besteko markarik onenak lortu zituen.

Bere hurrengo erronka, igande honetan Gasteizen egingo den Euskadiko Igerilari Konplotoenaren Txapelketa izango da. Bertan, Iñigok beste hamaika mutilen aurka neurtu beharko ditu indarrak.

Laguntza gutxi

Gaur egun, Oñatiko ETEOn ikasten du arratsaldez, eta goizero hurbiltzen da Agorrosinera entrenamenduak egitera.



Iñigo Gallastegi piszinaan, bere saltsan murgilduta.

Estiloren bat azpimarratzeokotan, berak atzerakakoan ikusten du hobetoen bere burua, batez ere 100 m. etan. Hala nola, proba horretan Gipuzkoako errekorren jabe dugu, minutu bat, bi segundu eta berrogetahemezortzi dezimako denboraz.

Dena den, salatu ere salatzen du igeriketaren munduak jasotzen duen laguntza urria.

Nahiz eta txikitik maila

ederra erakutsi, benetako orduan neska-mutikoek ez dute inolako irtenbiderik aurkitzen. Ez dirulaguntzarik, ez goi mailako zentrurik ez ezer.

Adibide argiena, Iñigo bera. Lehengoan adierazi zigun bezala, "eskerrak lortutako dominak behintzat guretzako direla". Ba igandean aukera berria izango du Gasteizen. Suerte on!

Zezeaga eta Vergara II.a nagusi

Ederto jokatu zuten larunbatean Jose Mari Zezeaga eta Salvador Vergarak Eibarko Astelehena pilotalekuan.

Aurtengo bikotekako txapelketan hasiera makala izan badute ere, larunbatean 22-9ko emaitzaz menderatu zituzten Salaberria eta Galarza.

Oraindik ere astia dute Jose Mari eta Salvadorrek finalerdietarako txartela eskuratzeko. Horretarako, ordea, ezinbestekoa izango zaie ligako bigarren bueltan garaipenak eskuratzea.

Ea ba. Guri behintzat gustatuko litzaiguke uberarra goi goian ikustea, txapela buruan. Zergatik ez?



M 2
Errotuloak
Tfnoa: 76 57 93
Bergara

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

BOLINTXO

**KIROLA EGITEKO
BEHAR DEN
GUZTIA.**

IBARGARAI 10,
Tfnoa: 76 38 32
BERGARA



1890

Justu ehun urte ditu argazki honek. 1890. urteko Bergarako Musika Banda ikusten ari zarete.

Probintzian egiten ziren lehiaketetan parte hartzeko egoki prestatuta egongo zen Udal Banda antolatu nahirik, Ramon Ruiz "Potxoko" organista kontratatu zuen garai hartan Bergarako Udalak.

Argazkiaren erdian azaltzen den bibote zuri burusoila duzue "Potxoko". Hogei urte eman zituen Bandako zuzendari lanetan.

Berak utzitako hutsunea betetzera Ignacio Gonzalez Es-

cala tolosarra etorri zen. Zaletu amorratua, Ignacio Gonzalezek musika ikasketak egitera bialdu zituen bere sei seme-alabak, eta denboraren joanean, seirek ere hortxe aurkitu zuten euren ogibidea, musikaren munduan hain zuzen ere.

Ignacio Gonzalezek Bergarako Udal Banda utzi eta gero, bere seme Miguel etorri, eta honen eskutik mailarik gorenera heldu zen Bergarako taldea.

Gaur egun, Alfredo Gonzalez, Miguelen semea dugu Udal Musika Bandaren zuzendaria.

Ospatzen ari garen Azaro-Abendu Musikalak, beraz, aspalditxo ditu bere sustraiak.

Antonio Urzelai



jolas



**GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27



ETXEBIZITZA

• Neska gazte bat beste neska batzuekin biziko litzateke pisuan. Tfonoa: 763527

• Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfonoa: 861555, edo 862301

• Pisua behar dut alkilerrean. Tfonoa: 764255

• Gela independente bat alokatzen da. 762112

• Konpondutako pisu txiki bat salgai oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfonoa: 761079

• Pisua salgai. Tfonoa: 761487, 1etatik 3retara eta 8etatik 10etara.

• Pisu erdiamueblatua alkilatzen da. 762793, 8etatik 10etara

• Umerik gabeko andragizonek pisu bat behar dute alkilerrean, lehenbailehen. 781704, edo 941-209883

• Baserria salgai Bergararik 3 km.ra. 770081, 10etatik 1etara eta 6etatik 8etara.

• Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfonoa: 765823

• Pisua alkilatzen da. Tfonoa: 763797. 2etatik 4etara eta 8etatik 10etara

• Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669

LANA

• 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldeko 3etatik 9ak arte. Tfonoa: 764061

• Neska bat edo andre bat behar da bi ume zaintzeko. Gaueko 8.30etatik 10etara. Tfonoa: 764806

• Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403

DENETARIK

• Alemaneko klase partikularrak. 765697

• Marrazki klaseak ematen dira FP, BUP, REM eta Ingenerutzako 1. mailakoentzat. 761330

• Pintura klaseak. Tfonoa: 764014 edo 763493

• Ikasi josten zure astialdian. 762858

• 20,50 m²ko garajea alkilatzen da Burdifornen. Egin berria. 764003

• 55 m²ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.

SALDU-EROSI

• Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

• Fondoko skixak txiki-txo gelditu jat. 4 urtetik 7ra bittarteko batendako ondo datoz. 7.000 pzta, makila eta guzti. 763269.

Hildakoak

M. Pilar Antonia Gaminde Arriolabengoa
Abenduaren 3an. 48 urte

Martin Garate Beristain
Abenduaren 3an. 80 urte

Emilio Abajo Aginaga
Abenduaren 11ean. 85 urte

Luis Iturbe Urzelai
Abenduaren 11ean. 62 urte

Marcelina Cabrejas Sanz
Abenduaren 11ean. 96 urte

BERRIGARA

Egin zaitez harpidedun



760397

IZAR - HOTZ

BARRENKALE 10
Tfnoa: 76 18 22

BERGARA

IZOZTUAK



BERGARAN
EUSKARAREN ERABILERA
INDARTZEKO ELKARTEA

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

Zure urteko 4.000 pezetarekin
gauza asko egin daitezke.

1. ABIZENA

2. ABIZENA

IZENA

HELBIDEA

TELEFONOA